

Eliza eta emakumearen hezkuntza XX. mendearen atarian: hausnarketa bat “Maria eta Jose” ikastetxe katolikoaren 125. urteurrena dela eta

Maitane Ostolaza Esnal
EHUko irakaslea

Artikulu honek eskola, eliza eta emakumearen arteko harremanak aztertzen ditu historiaren ikuspuntutik. Esparru horretan kokatuz, bere helburua emakumezkoen generoaren eraikuntzan eskolak jokatzeko funtsezko papera argitan jartzea da. Horretarako XIX. mendearen amaierako hezkuntza-eredu nagusia hartzen du aztergai, hots, eliza katolikoarena, eliz ikastetxe baten analisitik abiatuz. Bi ideia nagusi daude artikuluaren muinean: batetik, elizari buruzko irudi konbentzionalaren berrikusketa kritikoa egiten da eta eliza, erakunde atzerakoi, geldikor eta antimoderno gisa ulertu ordez, instituzio honek gizarte aldakorretan erakutsi ohi duen malgutasuna eta jarrera dinamikoa azpimarratzen dira; eta bestetik, kultura eta erlijioaren garrantzia ematen da aditzera, bi elementuok gizarte-egituraketan nahiz aldaketa-prozesuetan eragile aktiboak direla frogatuz.

The article examines the relationship between school, Church and women from the historical point of view. Within this field, it tries to show the basic role played by the school on the cultural construction of women gender. To this purpose it analyses the hegemonic education model of the late XIXth century, that is, the Catholic pedagogy concerning women, through the study of one particular Church school. This article develops two main ideas: firstly, it makes a critical revision of the conventional concept of Church –according to which the Catholic church is supposed to be a conservative, stained and out of day (anti-modern) institution– by showing the flexibility and the dynamic character of the educational religious congregations; and secondly, it brings to light the importance of cultural and religious factors on the maintenance (reproduction) of cultural and mental structures as much as being active forces of social change.

Zumaiako “Maria eta Jose” eliz ikastetxeak, Karitateko Karmeldarrek Gipuzkoan sortutako lehenak, 1996.eko azaroan 125 urte bete ditu. Ospakizun hau dela eta aitzakia aproposa suertatu zaigu “eliza eta emakumearen hezkuntza” gaiaren inguruan zenbait gogoeta egiteko. Aurrez esan behar da kongregazioaren artxibategietan lortutako dokumentuek ikastetxearen historia hurbiletik ezagutzeko aukera eman digutela¹. Baina ez hori bakarrik. Izan ere, eskuratutako informazioa oso lagungarria gerta dakiguke Berrezar-kuntzaren urteetako elizaren eredu pedagogikoa bere osotasunean ulertze-ko, jakina, garaiko testuinguru sozio-politikoa, ekonomikoa eta kulturala kontuan hartuz. Horra hor ondorengo lerroetan jorratuko dugun gaia. Lanak helburu bikoitza du. Alde batetik, industrializatzeko bidean zegoen XIX. mende-amaierako euskal gizartean, eliz ikastetxeek zuten eragin sozio-kulturala neurtu eta baloratzeko saiatu gara; eta bestetik, Karmeldar ikastetxearen praxi pedagogikora mugatuz, eta generoaren ikuspuntua erabiliz, emakumetasunaren eraikuntza kulturean oinarritzeko diren mekanismoak argitan jartzea izan da gure asmoa, prozesu horretan hezkuntzak duen garrantzia azpimarratuz. Goazen bada, besterik gabe, hausnarketa honen abiapuntutzat jo dugun gertakizun historikoa azaltzera.

1870. urtea amaitzear zegoela Ibarguengoitia parroko bilbotarrak Karitateko Karmeldarren Ama Nagusiari eskutitz bat igorri zion, honen kongregazioak Zumaiako ikastetxe bat zabal zezan eskatuz: «Zuregana jo dut berriro –zioen eskutitzak– Zumaiako emakume ospetsu batek bere jaioterrian doako eskola bat eraiki nahi duela eta»². Ongilea Frantziska Etxezarreta zen, herriko familia ospetsu bateko alaba eta Arana jauntxoaren alarguna. Garaiko hainbat nobleren antzera, Etxezarreta andereak, bere jaioterrian karitatezko ekintza bat burutu nahian, neskato txiroentzat ikastetxe bat eraikitzea deliberatu zuen. Erlijioa eta irakaskuntza bateratzea zen helburua. Baina asmoak asmo, amets hura errealitate bilaka zedin, hiru elementu ziren premiazkoak: eraikuntza egoki bat, lehen gastuetarako diru-kopuru bat eta irakaskuntzaz arduratuko zen komunitate erlijioso bat. Lehen biak ongilearen beraren esku geratu ziren. Hirugarrena, berriz, Bilboko parrokoari eta honen bitartekaritza-lanari esker lortuko da.

Apaizaren egitekoa ongilearen eta kongregazioaren arteko zubia ezartzea zen. Batetik, kongregazio-buruari ongilearen eskaintza luzatuko zion eta, bestetik, ongilearen eta kongregazioaren interesak hurbilaziko zituen. Ez dirudi Ibarguengoitia parrokoari zaila suertatu zitzaionik Karmeldarren Ama Nagusia konbentzitzea. Izan ere, Etxe-

1. Artikulu hau doktorego-tesia izango den ikerketa zabalago batean kokatuta dagoela ohartarazten dut irakurlea, bertan aurkituko dituen ideien eta argumentuen partzialtasuna kontuan har dezan. Bide batez, eskertu nahi ditut Karitateko Karmeldarrak, eta bereziki Zumaiako eta Gasteizko komunitateak, kongregazioaren artxibategiak zabaldu dizkidatelako. Esker anitz, halaber, Joseba Ossa, Iolande Ostolaza eta Paulo Iztuetari, lanari buruzko iruzkinak eta kritikak egiteagatik.

2. Cf. Jaime Nonell 1903: 415-416.

zarreta anderearen baldintzek ezin ho-beak ziruditen. Ongileak etxea, egokitzapen lanak burutzeko 30.000 erreale eta urteroko 5.500 errealeko errenta eskaintzen zituen. Gainera, ikastetxe berriaren horniduraz –altzari, eskola-tresna, eliz jantzi, etabarrez– arduratzen zen. Karmeldarren komunitateak, era berean, herriko neskatok dohainik irakasteko konpromezua hartzen zuen, helduentzat igande-eskolak antolatze-ko aginduarekin batera³. Behin akordioa lortu eta ohiko tramite legalak burutu ondoren, ikastetxe berria prest zegoen hilabete gutxi barru, 1871ko azaroaren amaieran ateak zabaldu zituelarik. Urte batzuk geroago eskolaurrea (1874) eta barnetegia (1883) jarri ziren martxan.

2. Testuingurua

Karmeldar ikastetxeak Zumaia bezalako herririka batean aldaketak eragin izana ez da harrizkeoa. Baina zer motatako aldaketak eragin zituen? Zein neurritan hobetu zen emakume zumaiarren kultur egoera, eta herriarena oro har? Nola lagundu zuen eliz ikastetxe berriak emakumezkoaren irudi tradizionala mantentzen, edo aldatzen? Galdera hauei erantzuteko ezinbestekoa dugu XIX. mendeko gizarte zumaiarraren ezaugarri sozial eta kulturalak ezagutzea.

3. "Fundazio Akta, 1871ko azaroak 30" (Zumaiako Maria eta Jose ikastetxeko Artxibategia). Hitzarmen honek 5. artikuluan honela dio: «La Rvda. Madre Superiora General a su vez se obliga a tener constantemente en la casa de la fundación en Zumaya, cuatro hermanas para dar la enseñanza gratuita a todas las hijas y vecinas de este pueblo de Zumaya, que quieran aprender a leer, escribir, contar, gramática castellana, ortografía, y las labores propias de su sexo».

4. Lamberto Lancis-etik ateratako datuak (1895).

5. "1861. urteko errolda" (Zumaiako Udal Artxibategia, aurrerantzean ZUA; Estatistika atala, 136. liburua). Alfabetatze datuei buruz ohar bat erantsiko nioke esandakoari. Alfabetatugabeen zifrak kontuan hartzen baditugu sexuen arteko desoreka ez dugu ia nabaritzen, emakumezkoen nahiz gizonezkoen portzentaia antzekoak baitira. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, erabateko alfabetatzeaz dihardugunean, emakumezkoen portzentaia gizonezkoenaren erdira jaisten baita: Zumaiar gizonezkoetatik % 26ak zekien irakurtzen eta idazten; aldiz, emakumezkoen % 12ak bakarrik. Ezberdintasuna erdialfabetatuen kopuruan legoke, hau da, irakurtzen baino ez zekitenen portzentaian. Emakume alfabetatu gehienak, jakina, talde honetan sartzen ziren Erregimen Zaharreko ereduari jarraituz, egoera hau 1900etik aurrera aldatzen joango bada ere.

Hainbat iturrik dioenez, XIX. mendearen erdialdeko Zumaia herri nekazari eta arrantzalea zen, bertako ekonomian zementugintzak gero eta pisu handiagoa hartu bazuen ere, portuaren mugimendua areagotuz zihoan bitartean⁴. Horrez gain, gune turistiko ere bilakatu zen, herriko bi hondartzek uda oro erakartzen zituzten bisitarietarako. Populazioari dagokionez, 1861eko erroldaren arabera, herria 1.601 biztanlek osatzen zuten. Haueetatik 811 gizonezkoak ziren eta 790 emakumezkoak. Populazioaren erdia baino gehiago analfabetoa zen, zehazkiago esanda, emakumezkoen % 56a eta gizonezkoen % 60a⁵. Bestalde, urte haietan Zumaiak bi herri-eskola zituen, mutilentzat bata eta neskentzat bestea. Dena den, eskolara 141 haur baino ez zen joaten, hots, eskola-adineko populazioaren erdia, gutxi gora-behera.

3. Emakumezkoen irakaskuntza XIX. mendean: eredu tradizionala nagusi

Aztergai dugun garaian eta emakumearen hezkuntzari dagokionez eredu tradizionala zen nagusi. Gogora dezagun, Antzinako Erregimenean gizartearen gehiengoak emakumezkoaren irakaskuntzaren aurka zegoela. XIX. mendearen hasieran, esaterako,

Asteasuko parrokoak emakumeei irakurtzen ikasteko gomendatzen zien. Ez, ordea, idazten ikasteko, gaitasun hau moralki kaltegarria gertatuko zitzaieela argudiatuz⁶. Askoren iritziz, kaltegarria ezezik alferrikakoa ere bazen emakumezkoek idazten ikastea. Kontuan hartu behar dugu, emakumeek ez zeukatela soldadutzara joateko edo Ameriketara emigratzeko inolako premiarik, gizonezkoek ez bezala. Irudi hau aldatuz joango da XIX. mendean zehar, batik bat, iraultza industrialak sortutako baldintza sozial, ekonomiko eta kultural berriei esker. Hala eta guztiz, sexuen arteko parekotasunetik oraindik oso urrun gabiltzala esan behar da.

3.1. Curriculum berezia

XIX. mendeko pentsamoldeetan emakumearen nortasuna amatasunak definitzen zuen. Emakume orok zekien gizartean bete behar zuen funtzio nagusia ama eta emazte izatean zetzala, beren esparru "naturala" familiara edo etxe barrura mugatzen zelarik. Mentalitate honen ispilu, emakumearen formazioak helburu bakarra zuen: ama-emazte funtzioak perfekzioz betetzeko beharrezkoak ziren gaitasunak garatzea. Horregatik, neskatoei txikitatik "labores propias del sexo" izeneko ikasgaia irakasten zitzairen. Horra hor emakumezkoen heziketaren ardatza. 1857.eko Moyano legeak, esaterako –espainiar eskola-sistemaren antolakuntzan erabakigarri gertatu zenak–, emakumezkoentzat eskola-curriculum murriztua baino ez zuen onartzen. Lege honen arabera, neskatoek lehenengo irakaskuntzan ondorengo ikasgaiok ikasi behar zituzten: Kristau-dotrina, idazketa, irakurketa, gaztelaniazko gramatika eta ortografia, aritmetikako

hastapenak eta oinarrizko historia eta geografia, hau guztia mutilek bezala. Aldiz, mutilentzat derrigorrezkotzat jotzen ziren hainbat ikasgai neskek ez zituzten ikasi behar, adibidez, geometria, fisika, historia naturala edo marrazketa lineala, hauen ordeztan "emakume-metasunari" zegozkion ikasgaiak eskaintzen zitzaizkielarik: "sexuari dagozkion egitekoak", egiteko horiei aplikatutako marrazkigintza edota etxeko higienari buruzko oinarrizko kontzeptuak, besteak beste.

Ikus dezakegunez, hezkuntza-ezberdintasunak koantitatiboak ezezik, koantitatiboak ere baziren gizarte tradizionalan. Emakumeek eskolara urri joateaz gain, mutilekin konparatuz heziketa osagabea eta kalitate eskasekoa jasotzen zuten. Bereizketa honen arrazoiak, funtsean, bakarra zen: gizonak eta emakumeak "naturalki" ezberdinak zirelako ustea. Beraz, ezberdinak izanik ezinezkoa zirudien biak elkarrekin heztea eta, are gutxiago, curriculum bera edukitzea. Ruiz Amado jesuitak garbi asko esplikatzen zuen XX. mendearen hasieran azaldu berri duguna:

Los talentos masculino y femenino, sin guardar entre sí una relación cuantitativa, suelen ofrecer una marcada diferencia cualitativa; pues por lo común, se distingue la mujer por cierto sentido práctico y delicado, en que se aventaja al varón, que a su vez suele aventajarsele en el talento especulativo (Ruiz Amado 1921: 60).

Izan ere, emakumezkoaren estereotipo tradizionala honako baloreekin lotzen zen: apaltasuna, samurtasuna, bertutea, lotsa edo menpekotasuna, besteak beste. Gizonezkoen kasuan berriz, indarra, autoritatea, boterea, jakituria edota abstrakzioarako gaita-

6. Dirudienez, "kalte moral" hori, funtsean, maitasun-eskutzak irakurtzeko eta erantzuteko gaitasuna lortzean zetzan (Lasa 1968).

suna ziren nagusi. Balore hauek, noski, oso kontuan hartuko ditu sexu bakoitzari eskainitako hezkuntza-motak. Bestalde, gogorarazi behar dugu emakumearen nortasuna amatasunak, edo amatasunarekin erlazionatutako ezaugarriek, definitzen zutela. Beraz, logikoa zirudien emakumezkoen hezkuntza “amatasun-printzipioan” oinarritzea. Ruiz Amadoren hitzak hartuko ditugu berriro garaiko mentalitatearen eta, bereziki, elizaren ikuspegiaren lekuko:

Para determinar el carácter moral de la mujer (debe tenerse en cuenta) la relación hacia la descendencia. La relación de la madre para con sus hijos es indudablemente más íntima, duradera y naturalmente necesaria, que la del padre (...). Con lo cual está enlazado asimismo el desenvolvimiento de sus afectos naturales: los tiernos sentimientos, la inclinación a fomentar y cuidar de la vida delicada, imprimen su particular sello en el ánimo femenino. La solicitud abnegada, la compasión y misericordia, son los rasgos fundamentales de la condición mujeril. Y con estas cualidades tienen conexión, además, la indulgencia, longanimidad, la paciencia, el amor que perdona y espera, peculiaridades del alma femenina. En esta misma relación se funda, que la posible maternidad haya de ser el verdadero eje de la educación femenina (Ruiz Amado 1912: 34-35)

3.2. Bi eskola-mota bi klase sozialentzat

Eredu tradizionallean, azkenik, emakumearen hezkuntza klase sozialaren arabera ulertzen zen. Familia xume bateko neskatok eta goi-mailetakok ez zuten heziketa mota bera jasotzen. Bakoitzaren premiak eta betebeharrak sozialak ezberdinak izanik, eta status ezberdinetako senarrekin ezkonduko zirenez, ezin pareka zitezkeen bien heziketak. Lehenak, gehienetan, oinarritzko ira-

kaskuntza baino ez zuen burutuko. Jakina, familia bat gobernatzeko nahikoa zen kristau-dotrina, idazten, irakurtzen eta zenbatzen ikastea, edota etxeko “arteak” (higienea, orratz-lana, sareztadura, gakorratz-lana, etab.) ongi menderatzea. Goi-mailako neskatok, aldiz, hezkuntza sakonagoa eta arretatsuagoa jasoko zuen –maiz barnetegietan–, etorkizunean bete beharko zituen famili edo gizarte-funtzioak konplexuagoak zirelako. Kasu honetan, oinarritzko ikasgaietaz aparte, bestelakoak ere irakatsiko zitzaizkion, hala nola, pianoa, frantsesa, antzerkia, gizalegea, bordatua, marrazkigintza eta, oro har, emakume handiki baten ztat apaingarritzat jotzen ziren “ornamentuzko arteak”.

Baina bi hezkuntz-ereduen arteko diferentzia ez zetzan edukian bakarrik. Helburuak ere ezberdinak zituzten. Klase xumeetako neskatok hezkuntzan praktikotasuna eta erabilgarritasuna izango dira irizpide nagusi. Ez dugu ahortzi behar neskatok hauek, ama-funtzioetarako prestatzeaz gain, langile izateko ere trebatu behar zirela. Izan ere, etorkizunean, familiaren egoera ekonomikoak hala eskatuz gero, nekazaritzan edo fabriketan lana egiteko premian aurki zitezkeen. Famili aberatsetako neskatok, aldiz, ez zuten aparteko formazio profesionalik behar, ez baitziren inoiz langile izango. Helburua azken hauentzat bestelakoa zen, hots, goi-mailako zirkuluetan eroso mugitzeko molde dotore eta finak eskuratzea eta, bide batez, itxurazko kultura orokorra jasotzea.

3.3. Eskola-eredu tradizionala krisian

Esanak esan, eskema tradizionaletik atera gabe, emakumea eskolatzearen aldeko joera indartzen joango da XIX. mendearen erditik aurrera. Emaku-

meak balioen transmisioan oinarrizko papera jokatzeko zuen heinean derrigorrezkoa zirudien bere formazioari erreparatzea, belaunaldi gazteen heziketa, eta azken finean gizarte osoaren etorkizuna, emakumearen eskutan baitzegoen. Bestalde, gero eta konplexuago bilakatzen ari zen gizarte erdi-industrializatu hartan emakumeak senarraren eta seme-alaben kezka intelektualak edo sozialak ulertzeko gai zela erakutsi behar zuen. Eta horretarako ezinbestekoa zitzaien bere hezkuntza-maila hobetzea gizonezkoen formazioarekin nolabait homologatuz. Gauzak horrela, emakumearen eskolatzearen aurka zeuden zenbait sektorek, baldintza berrien aurrean, amore emango dute irakaskuntza eta amatasuna ez direla nahitaez bateraezinak konturatzean.

4. Eliza eta emakumearen hezkuntza

Aldakuntza-prozesu honetan indar eta botere anitzek hartuko dute parte, besteak beste, elizak. Elizarentzat emakumearen irakaskuntza defendatzeak etorkizunaren aldeko apustua egitea suposatzen zuen. Jakina, esparru honek aukera berriak eskaintzen zizkion elizari gizarte birkatolizatzeko aurrera zeraman estrategian. Elizak logika garbia zuen: emakumezkoa heziz gizarte osoa hez zitekeen. Azken finean, kristau-heziketa sendo batez hezitako neskatua etorkizunean ama edota emazte katoliko zintzoa izango zen eta, gainera, fedea galtzeko zorian zegoen gizarte sekulartu hartan, familia kristautasunean mantentzen

lagunduko zuen. Elizak, beraz, ahalegin guztiak egingo ditu emakumea bereganatzeko, horretarako nagusiki emakumezkoen hezkuntza-kongregazioak erabiliz. Testuinguru honetan kokatu behar da “Maria eta Jose” ikasketxearen sorrera eta iharduera pedagogikoa.

4.1. Eliz kongregazioen sarrera emakumearen irakaskuntzan

XIX. mendearen hasieran (1826an) Vedrunatar Joaquinak Karmeldarren Kongregazioa Katalunian fundatu zuenean harridura baino ez zuela piztu diote garaiko iturriek⁷. Ulgerria da, kontuan hartzen badugu Vedrunaren institutua, bere motako kongregazioen artean, Espainian sortutako lehena izan zela. Helburu bikoitza zuen kongregazio jaioberriak: batetik, herriko haurrak heziketa bidez ebanjelizatzea eta bestetik, emakumezkoen kultur maila hobetzea, kristau-heziketa sendoa eskainiz. Dударik gabe, egitasmo honek elizari eragin-esparrua zabaltzeko aukera berriak ematen zizkion emakumezkoaren irakaskuntza eta ebanjelizazioa elkarlotuz. Aipagarria da kongregazioaren herrikoitasuna, hasierako planteamenduetan bederen. Eta ez bakarrik klase xumeetako haurrak hartzen zituelako hezigai; halaber, erlijio-soen jatorriari erreparatzen badiogu antzeko joera somatuko dugu. Izan ere, kongregazioak bokaziodun neskatoei ez zien derrigorrezko doterik eskatzen. Hartara –fundatzaileen esanetan– herritar gazteei, sarrera-baldintza erosoak eskainiz, erlijioaren ateak zabaltzen zizkieten⁸. Nola burutu ziren ordea

7. Jaime Nonell-en hitzetan, «llamó poderosamente la atención del Prelado (...) el proyecto de instituir escuelas en los pueblos para la instrucción de las niñas y su educación cristiana, apenas, o sin apenas, conocidas hasta entonces en nuestra patria, pues en Cataluña por lo menos, tenía se por cosa muy impropia de las jóvenes el aprender a leer y a escribir» (Jaime Nonell 1903: 246).

8. «Tenía (el Instituto) como idea fija ayudar a tanta multitud de chicas jóvenes que, por escasez de medios, no podían ser religiosas. Les parecía hacer una obra del agrado de Dios si fundaba un

asmo hauek? Zein neurritan bilakatu ziren errealitate? Galdera hauei erantzuteko premiazkoa deritzogu Karmeldarren ekintza pedagogikoa hurbiletik ezagutzeari.

4.2. Zumaiaiko ikastetxearen adibidea: proposamen pedagogiko “berri” baten azterketa

Ikastetxeari buruzko lehen datuak Fundazio Aktan aurkitu ditugu. Dokumentu honen arabera, 1871ko azaroaren 26an –hau da, ikastetxea inauguratu zen egunean– 118 ikaslek osatzen zuten matrikula. Inaugurazio ekitaldian Zumaiaiko alkateak eta parroko jaunak honako aholkuak eman zizkieten ikasleei:

El Señor Presidente, como el Señor Cura Párroco, exhortaron a las niñas a que fuesen puntuales en la asistencia a la escuela, sumisas y obedientes a preceptos que se les impongan por sus superiores y sobre todo se dedicasen con esmero al cumplimiento de los deberes religiosos, y con aplicación al estudio y adelanto de la parte literaria y labores propias de su sexo⁹.

Goiko parrafoan karmeldarren hezkuntza-ereduak izango dituen ezaugarri nagusiak antzeman ditzakegu, hala nola, erlijioaren nagusitasuna, disziplinaren garrantzia, emakumezkoei bideratutako heziketa espezifiko edota formazio sendo baten aldeko apustua. Beste modu batera esanda, erabateko

hezkuntzan (edo hezkuntza integratuean, garaiko terminologia erabiliz) oinarritutako irakaskuntza.

Maria eta Jose ikastetxean, eliz ikastetxe orotan bezala, erlijioa bilakatuko da heziketaren ardatza. Erlijioak baldintzatuko du eskola-iharduera guztia, eta ez bakarrik dotrina edo historia santuari eskainitako orduak. Ikasgai hauetaz gain, klase-ordutegian erlijio-ekintza ugari tartekatzen ziren ikasleen fedea suspertzeko asmoz: klase-hasierako eta -bukaerako errezoak eta kantuak, errosario santua, eguneroko meza, Amabirjinaren hilabetea, santu-egunetako ospakizunak, gogojardunaldiak edota sakramentuen praktikak, besteak beste. Ez dugu ahortzi behar, elizak nagusiki hezkuntza-kongregazioak erabiltzen zituela gazteria ebanjelizatzeke. Gainera, kristau-heziketa, orokorrean, erlijioan oinarritzen bazen are gehiago emakumezkoen kasuan, emakume-nortasunaren funtsezko elementutzat jotzen baitziren fedea eta erlijioa¹⁰. Karmeldarren ikastetxeetarako onartutako araudian ongi ikusten da erlijioari ematen zitzaion garrantzia:

- Lo primero y principal que deben enseñar a las niñas es la piedad y la virtud dignas de una doncella cristiana (...).

- Siendo la educación moral y religiosa de las niñas el objeto más interesante y digno de nuestra solicitud, es preciso que no omitan diligencia alguna

Instituto en el cual pudieran tener fácil acceso estas jóvenes y, con tal medio, procurar la ayuda para los necesitados” (*Beatificationis et Canonizationis Serve Dei Ioachinae de Vedrura de Mas...*, Erroma, 1931, in Burgell 1994: 126).

9. “Fundazio Akta, Zumaian 1871ko Abenduaren 4an sinatua” (ZUA, Irakaskuntza Publikoa atala, 76 liburua).

10. «La educación de las niñas –defendatzen zuen Ruiz Amadok– ha de tener por fundamento la enseñanza religiosa, no sólo por las razones generales, que se extienden también a los niños; sino por aquella otra razón, común a todas las mujeres de todas las clases sociales, y a los varones de la clase popular: que la Religión ha de ser para ellos la única filosofía del Universo y de la vida... Sólo esa circunstancia hace que la enseñanza de la Religión tenga particular interés en la educación de las mujeres, en cuanto se diferencia de los varones» (Ruiz Amado 1912: 215-216).

para que sea de todo punto completa y perfecta (...).

- Aprovecharán todas las ocasiones, que se les ofrecieren, para inspirarles el santo temor y amor de Dios, el horror al pecado y a las ocasiones de él, la práctica de las virtudes y de las obras de misericordia, y en particular la devoción a la Santísima Virgen (...)”¹¹.

Baina erlijioa ez zen guztia. Bestelako gaiak ere bazuten lekurik Maria eta Jose ikastetxeko curriculum zabalean. XIX. mendearen bukaerako eskola-prospektuan (barnetegia ordurako zabalik zegoen) honako ikasgaiak agertzen zaizkigu¹²: Kristau-dotrina, historia sakratua, elizaren historia, moralak, irakurketa, kaligrafia, gramatika, literatur hastapenak, aritmetika, aritmetika komertziala, algebra, geometria, geografia, Espainiaren historia, unibertsuaren historia, fisika, kimika eta natur historiaren hastapenak, zuzenbidearen hastapenak, etxeko ekonomia eta higiena eta esku-lanak (orratz-lanak, sareztadura, bordatua, etab.). Hauekin batera “ikasgai bereziak” izenekoak eskaintzen ziren, hala nola, mekano-grafia, takigrafia, liburuen kontularitza, euskara, frantsesa, loragintza artifiziala, ornamentuzko marrazkigintza, pintura, solfeoa, pianoa, biolina edo argazkigintza, besteak beste. Azken hauek gainera ordaindu beharrekoak ziren. Beraz, garaiko egoera kontuan hartzen badugu, egitarau aberatsa dela esan genezake, batik bat, eskola publikoen curriculumarekin konparatuz. Ez dezagun ahantz, kalitatezko

irakaskuntza eskaintzea zela ikastetxe berriaren helburu nagusienetarikoa bat.

Dena den, ikasle guztiek ez zuten irakaskuntza bera jasotzen. Azpimarra dezagun, Maria eta Jose ikastetxeak lehen aipatutako eskema bikoitza jarraitzen zuela –bestalde, garaiko ikastetxe erlijioso gehienen antzera–, ordaintzeko klaseetan (barnetegian) eta dohainekoetan (kanpoko klaseetan) heziketa-modu ezberdinak eskainiz. “Ikasgai bereziak”, esaterako, barneko edo pentsio erdiko ikasleentzat gorde ohi ziren, dohaineko ikasleek oinarrizko irakaskuntza baizik jasotzen ez zuten bitartean. Uniformeak halaber ezberdinak zituzten eta, sarritan, irakasleak ere bai. Formula bikoitza, beraz, bi klase sozialetan banatuta ulertzen zen gizarterako, batetik herritarrek aurkitzen zirelarik eta bestetik, elitekoak.

Aipatzekoa da, bestalde, ikasketen-programan euskara agertzea, izan ere, euskal hizkuntzaren erabilera eskoletan ofizialki debekatuta baitzegoen, dotrina erakusteko izan ezik; Karmeldarren ikastetxean, aldiz, euskarari hasieratik bere tartetxoa eskaini zitzaion, fundatzaileen nahia errespetatuz¹³. Adibidez, jakin badakigu 1875ean inauguratu zen eskolaurrean hurrek euskaraz ikasten zutela (Alonso 1968: 326). Honetan guztian zerikusirik izango zuen ziurrenik Txomin Agirrek, hainbeste urtetan komunitatearen kapelau izan zen idazle eta euskaltzain ezagunak. Dena den, karmeldarren

11. *Instrucción para los colegios de las Hermanas Carmelitas de la Caridad*, Manresa, 1908, 15-17 (Karitateko Karmeldarren Gasteizko Probintzi Artxibategia, aurrerantzean, KKGPA).

12. *Colegio de María y José, dirigido por las Religiosas Carmelitas de la Caridad*, Zumaya, Valladolid, Imprenta de Andrés Sánchez, u.g. [1900 baino lehenagokoa].

13. Iburguengoitia parrokoak, ikastetxea sortzeko gestioak burutzen ari zela, honela idatzi zion karmeldarren Ama Nagusiarri: «Lo que convendría es que (las hermanas) sepan vascuence, no sólo porque (de lo contrario) no podrían entenderse con la gente del pueblo, sino porque mi deseo y el de la religión es que se conserve la lengua del país, y con ella las buenas costumbres...» (“Mariano J. Iburguengoitiak Paula Delpuig Ama Nagusiarri bidalitako eskutitza, Bilbon, 1871.eko irailaren 17an”, cf. Jaime Nonell 1903: 421).

kasuan ere, elizaren joera tradizionalarekin bat etorri, euskara bultzatzerakoan pisu handiagoa izaten zuten argudio moralek edo erabilgarritasun-irizpideek arrazoi kulturelek baino. Euskara, beraz, fedearen gotorleku zelako ustetan edota ebanjelizatze-tresna lagungarri gerta zitekeelakoan defendatzen zen. Horren adierazgarri ditugu 1882ko abuztuan, ikastetxera bisita egin ondoren, Ama Probintzialak esandako hitzak:

Estos días he pasado visita a estas buenas Hermanas. Quedo contenta por su buen espíritu y observancia de las reglas. Pero he notado que tienen mucho empeño, que las niñas aún pequeñas aprendan el castellano. Yo creo que deben esperar, que tengan buen simiento en la virtud; al contrario, sabiendo el castellano, se les facilitan los medios para dejar a sus Padres y perder sus almas¹⁴.

Heziketa egoki baten funtsezko zutabea –eta halakoxea izan nahi zuen ikastetxe karmeldarrak eskainitakoak– disziplina zen. Garaiko eskemen arabera, neskatoei obedientzi sena sarrarazi behar zitzaien eta horretarako derrigorrezkotzat ematen zen disziplina. Izan ere, emakumezkoek obedienteak eta esanekoak zirela erakutsi behar zuten, lehenik bere aitaren (ezkongabe ziren bitartean) eta gero senarraren (ezkondu ondoren) esanetara makurtuz. Disziplinak, halaber, heziketa moralari laguntzen zion, borondate sendo bat lortzeko ezinbesteko tresna bilakatuz. Gainera, haur disziplinatuetan eskola-emaizak hobeak izaten ziren. Horra

hor disziplinaren abantailak, kongregazio karmeldarrak, noski, oso kontuan izan zituenak:

Gorde itzazue geletan ordena, disziplina eta menpekotasuna –agintzen zuen kongregazioaren araudiak–, horretarako jarrera duina eta begirunezkoa erakutsiko duzuelarik, zeinak neskatoengan zeuen pertsonari dagokion miresmena eta maitasuna sortaraziko duen¹⁵.

Baina disziplinan oinarritzeaz gain, karmeldar pedagogiak, garaiko korronte berritzaileekin bat etorri, bi irizpide zituen nagusi: erabilgarritasuna eta arrazionaltasuna. Hasteko, helburua ikastetxera ahalik eta ikasle gehien erakartzea zen. Horretarako, irakaskuntzak kalitatezkoa ezezik praktikoa eta erabilgarria ere izan behar zuen, bizitza arrunterako edota lanbideetarako –emakumeari gizarte modernoak eskaintzen zizkion aukerak kontuan izanik– probetxugarriak gerta zitezkeen trebetasunak landuz. Hor zegoen egon arrakastaren gakoa. Ez ziren alferrikakoak kongregazioaren arduradunek praktikotasunaren alde emandako gomendioak: «irakats itzazue probetxuzko edo erabilgarriak diren ikasgaiak»¹⁶, edo «irakaskuntza literarioari eta esku-lanei dagokienez, ikas dezatela (ikasleek) ugari, beren etxeetan probetxuzko izan daitezten»¹⁷, adibide batzuk emateagatik.

Praktikotasunari emandako garrantziaren lekuko dugu, halaber, karmeldarrek eskola-curriculum antolatzeke zuten modu berezia. Garaiko iturriek diotenez, ikasgaiak bost multzotan

14. *Libro de Visitas para uso de las Hermanas Carmelitas de la Caridad de Zumaya* (KKGA).

15. *Estatutos para las Hermanas Carmelitas de la Caridad*, Bilbo, 1902, 10 orr. (Valladolid-eko Unibertsitate Artxibategia, aurrerantzean VUA, leg 1407, exp 67). Egilearen itzulpena.

16. *Consejos que da a las Hermanas Carmelitas de la Caridad el Director de su Instituto D. Bernardo Sala, Pbro.*, Vich, Librería Católica de San José, 1891, 3 orr. (KKGPA). Egilearen itzulpena.

17. "Visita de la Superiora General a la Comunidad de Zumaya, 14 de Julio de 1928" ("Libro de Visitas...", KKGGA). Egilearen itzulpena.

banatzen zituzten, erabilgarritasun-mailaren arabera¹⁸: 1) ikasgai *gutziz erabilgarriak* zirenak, hau da, neskato ororentzat premiazkotzat jotzen zituztenak; 2) *erabilgarriak* edo, premiazkoak izatera iritsi gabe, interesgarri eta komenigarriak ziruditenak; 3) *ez hain erabilgarriak* –hemen ornamentuzko arteak sartzen ziren– edo goi-mailako neskatoentzat baino beharrezkoak ez zirenak; 4) *gehiegizkoak* edo, bizitzarako alferrikakoak izateaz gain, neskatoengan, apaltasuna sustatu ordeztan, harrotasun arriskutsua piz zezaketenak; 5) *kaltegarriak*, edo amatasuna nahiz emakumetasunaren aurka zihoa-zenak.

Lehentasuna, noski, ikasgai *gutziz erabilgarriak* izango zuten, multzo honetan ondorengoak sartzen zirelarik: kristau-dotrina, irakurketa eta idazketa, galtzetagintza, jostorraz-lanak, etxe-ekonomia eta gizabidea. Hauek ziren, hain zuzen, arreta osoz irakatsi behar ziren ikasgaiak, edozein izanda ere neskatoaren gizarte-jatorria. Saillkapen honek, bestalde, argi erakusten digu zein ziren karmeldarren hezkuntza-lehentasunak: erlijioa eta “emakumezkoari zegozkion lanak”, alegia. Gainerako ikasgaiak –aritmetika, gaztelaniazko gramatika, bordatua, sareztadura, lisaketa edo ornamentuzko arteak– halabeharrez baino ez ziren irakatsiko –ikasleriaren premien arabera edota ikasketa-plan ofizialak hala eskatuz gero –, baldin eta goikoen kaltetan ez bazihoazen. Azkenik, *gehiegizkoak* edo *kaltegarriak* ziruditen ikasgaiak (poesia, nobelagintza, antzerkigintza edo dantza, besteak beste) inola ere ez ziren irakatsi behar, emakumearen famili funtzioa arriskuan jartzen zutelako.

Bigarren irizpide nagusia, karmeldarren pedagogiari dagokionez, arrazionaltasuna zela esan dugu. Puntu honetan nahiko aurrerakoi agertzen zaigu Vedrunaren kongregazioa. Izan ere, institutu honek, denbora berriei egokitu nahian eta sarritan metodo tradizionalei uko eginez, garaiko korrante pedagogikoetatik hainbat elementu eta metodo berritzaile jaso zituen. Hala nola, prebentziozko metodoen lehentasuna zigorak zokoratuz, heziketa biguna (edo ez-autoritarioa), arrazoian oinarritutako irakaskuntza, ohiko memorismoa gaitzetsiz, kalitatezko irakaskuntza, metodo zientifikoaren erabilera ikasgaiak azaltzerakoan, denboraren antolaketa razionala edo irakasleen prestakuntza sendoa, besteak beste. Honen guztiaren adierazgarri dira ikastetxe karmeldarrentzat emandako aginduok:

- Procure [Ama Probintzialari] estar al corriente de cualquier adelanto que se haga en materia de pedagogía o enseñanza, para que puedan aprovecharse de él nuestros colegios.

- Procuren con mucho esmero ilustrar el entendimiento de las niñas (...).

- No manden aprender de memoria ninguna cosa, que antes no la hayan hecho entender con su explicación (...).

- Incúlquenles mucho [ikasleei] el espíritu de observación, enseñándoles cómo han de examinar y observar las cosas (...).

- No se muestren coléricas o demasiado severas, pues el excesivo rigor, lejos de corregirlas, las irrita, exaspera y obstina más y más. Sean muy parcas y muy discretas en castigar, y ganen a las alumnas más bien por el amor que por el temor (...).

- En general, sean más prontas en premiar la buena conducta que en castigar la mala; y procuren reducir el castigo a privación de premio¹⁹.


18. *Estatutos para las Hermanas Carmelitas de la Caridad...*, 3-5 orr.

19. *Instrucción para los colegios de las Hermanas Carmelitas de la Caridad...*

4.3. Eliz instituzioen dinamika: Zumaiaiko ikastetxearen matrikula-datuei buruzko analisia

Maria eta Jose ikastetxeak arrakasta itzela izan zuela ukatzerik ez dago. Matrikulazio-datuei begiratzea nahikoa da horretaz jabetzeko (ikus beheko grafikoa)²⁰. Lehen azaldu dugun bezala, ikastetxea inauguratu zen urtean (1871an) 118 ikaslek hasi zuten ikasturtea²¹, komunitatea lau lekaimek osatzen zutelarik. Bost urte geroago dagoeneko ikasle-kopurua bikoiztu egin zen, 260ra helduz. Ordutik aurrera lau motatako ikasleak aurkituko ditugu datuotan: barneko ikasleak (edo barnetegikoak), kanpokoak, eskolaurrekoak eta iganderokoak (helduak). Kurbak isladatzen duenez, matrikulak etengabeko gorakada izan zuen, batik bat 1890eko hamarkadatik aurrera. 1909-1910 ikasturtean esaterako –hau da eman dezakegun azken erreferentzia, eskuratu ditugun datuen arabera,

ondorengo zifrak probintzia osoari baitagozkio– ikastetxeko matrikula 339 ikaslek osatzen zuten. Hauetatik 127 kanpo-ikasleak ziren, 74 barne-ikasleak, 105 eskolaurreko ikasleak eta 33 iganderokoak. Komunitatea, bestalde, ia bost aldiz handiagoa bilakatu zen, 19 ahizpa biltzen zituelarik. Joera hau, gutxienez, II. Errepublikara arte mantenduko da²². Bestelako iturriek ere ikastetxearen arrakastaren berri ematen digute. Lehen Irakaskuntzako Probintzi Ikuskariak, adibidez, behin baino gehiagotan azaldu zion bere kezka Zumaiaiko Irakaskuntza Publikorako Udal Batzarrari herriko eskoletara neskato gutxi joaten zela salatuz, hutsune horren zergatia, «ezin zaiolarik maistraren axolagabekeriari eragotzi eta bai, aldiz, Karitateko Ahizpek herrian duten Ikastetxeari»²³. Garbi dago, beraz, herriko neskatoek gogokoago zutela karmeldarren ikastetxea eskola publikoa baino.



Iturria: "Estadísticas del Instituto y sus dependencias, 1873-1909" (KKGPA)

20. Datuok *Estadísticas del Instituto y sus dependencias*-etik atera ditugu (KKGPA).

21. Erreferentzia gisa, urtebete lehenagoko eskola-datuak emango ditugu: 1870ean Zumaian 74 neskato joaten zen herriko eskolara eta 26 klausurako karmeldarren komentura. Mutil guztiak aldiz herriko eskolara joaten ziren, eta hauen kopurua 65ekoa zen (ZUA, Irakaskuntza Publikoa atala, 76 liburua).

22. Erreferentzia hurbilago bat ematearren 1975eko datuetara joko dugu: kurtso honetan, orotara, 787 ikasle zegoen matrikulatuta, hauetatik 494 OHOn, 87 eskolaurrean, 56 barnetegian eta 150 lanbide-heziketan. Komunitatea 20 erlijiosok osatzen zuten.

23. "1877ko Urriaren 12an Zumaiaiko Irakaskuntza Publikorako Udal Batzarrak egindako bileraren Akta" (ZUA, Irakaskuntza Publikoa atala, 76 liburua). Egilearen itzulpena.

Bestalde, ikasle-mota ezberdinak bereizten baditugu eta euren bilakae-rak alderatu, datu interesgarriak atera ditzakegu. Hasteko, esan beharra dago matrikularen gehiengoak kanpoko ikasleek osatzen zutela, % 40a hain zuzen. Hauetatik, batzuek ordaintzeko klaseak jasotzen zituzten (pentsio-erdikoak ia denak). Ikasle-multzoen bakarkako bilakaeran, talde honek izango du hazkunderik nabarmenena, gailurra 1901ean joko badu ere (gure epealdiaren barruan, noski), 172 ikaslerekin. Halaber, aipatzekoa da eskolaurreak lortu zuen arrakasta, 6 urtetik beherako neskatok ikasleen herena osatzen baitzuten. Igande-klaseetara joaten zen neska-kopurua ere (gehienak, eskolara joateko bes-telako aukerarik ez zutenak) ez zen atzean geratzen, matrikularen % 20a osatzen zuela kontuan hartzen ba-dugu. Hori bai, talde honen pisua (absolutua nahiz erlatiboa) gutxitzen joango da, kanpoko ikasleen kopurua hazten doan heinean (bien bilakaerak kontrajarriak direla argi ikus daiteke grafikoan).

Azkenik, ez genuke iruzkin hau amaitu nahi barnetegari buruz mintza-tu gabe. Izan ere, urteak pasa ahala, barnetegia gero eta pisu handiagoa hartzen joango da ikastetxearen bizi-tzan, bere gune eta ardatz bilakatu arte. Horren lekuko dira, besteak beste, matrikulazio-datuak. Grafikoari begira-tzea besterik ez daukagu barneko ikas-leek, batik bat 1890etik aurrera, haz-kunde azkarra ezagutu zutela oharta-razteko. Gainera, ikastetxeko ardura-

dunek barnetegari lehentasuna eman zioten (hainbat arrazoi zirela medio, sozioekonomikoak nagusiki), garaiko iturriek erakusten dutenez. Hori zela eta, Zumaiar komunitateak behin baino gehiagotan entzun behar izan zituen goikoen kexak, institutuaren jatorrizko helburua haur pobreak hezteka zela gogorazten zitzaion bitartean²⁴. Dena den, azpimarra dezagun, ikastetxeak ospea eta arrakasta lortu bazuen, eta soberan lortu zuen herrian ezezik baita herritik kanpo ere, Estatu mailako ikas-tetxe ospetsua izatera iritsi zen arte, neurri handi batean, bere barnetegari esker lortu zuela. Barnetegiak biltzen zituen, nagusiki, beste probintzietako edota Estatuko hainbat tokitatik etorri-tako ikasleak, bide batez, ikastetxearen eragin-esparrua luze-zabal barreiatuz.

4.4. Tradizioa eta modernotasuna-ren erdibidean

Azalpenaren bukaerara heldu garen honetan, Maria eta Jose ikastetxearen lehen urteei buruzko balantzea egitea baino ez zaigu geratzen. Hori dela eta, ekarpenak bi multzotan banatu ditugu: 1) elementu berritzaileak edo aurrera-koiak; 2) elementu kontserbadoreak edo tradizioa mantentzen lagunduko dutenak.

Lehenengoan artean, emakumez-koen eskolatzeak (eta bide batez alfa-betatzeak), ikastetxearen eraginez izan zuen gorakada aipatu behar dugu. Po-pulazio-erroldeetatik ateratako datuen arabera, Zumaiako emakume analfabe-toen kopurua murriztu egin zen: 1877an

24. Honen adierazgarri dira, besteak beste, bisita-liburuak. Esaterako, 1910eko uztailean Ahizpa Nagusiak ikastetxera egindako bisitaren kronikak honela dio: «Ha pasado la santa visita a este colegio de Zumaya, quedando contenta porque hay observancia de las Constituciones. Las Hermanas están unidas con la Superiora, tienen deseos de su perfección y cumplen con su deber... Procuren ser humildes y sacrificadas trabajando con celo en la educación de las muchas niñas que tienen en las clases tanto en las internas como las gratuitas, ya que éste es el objeto principal de esta fundación» (*Libro de visitas para uso de las Hermanas Carmelitas de la Caridad de Zumaya*, KKGPA).

emakumezkoen erdiak alfabetatu gabe bazeuden 1900ean, aldiz, portzentaia hau ez zen % 28ra baino iristen. Ondorengo hamarkadetan alfabetatze-datuek gora egingo dute, nahiz eta gorakada hau motelagoa izan. Bestalde, irakurtzen eta idazten zekiten emakumezkoek bikoiztu egingo dute portzentaia 1877-1900 epealdian, emakumezkoen % 25etik % 54ra pasatuz (edo % 70era 1930ean), bide batez, gizonezko eta emakumezkoen arteko desoreka zuzentzen zihoan bitartean. Esan ezin esango dugu aldakuntza honen motore bakarra karmeldar ikastetxea gertatu zenik. Bai ordea bere eragile garrantzitsuenetariko bat, garrantzitsuena ez bazen.

Halaber, baieztatu behar dugu ikastetxeari esker emakumezkoen irakaskuntza-maila hobetu egin zela. Karitateko karmeldarrek helburu nagusizat erlijioa zuten arren saiatu ziren, tokian tokiko premiei erantzunez, curriculum aberats eta egokia eskaintzen. Funtsen, hezkuntza-eredu tradizionalari uko egin gabe, garaiko pedagogi korronte berritzaileetatik hainbat irizpide eta elementu onartu zituzten hezkuntza katolikora egokituz, hala nola, eskola ekintzailearen printzipioa, lanbide-heziketaren garrantzia, pedagogia ez-autoritaria, metodo zientifikoa, kalitatezko irakaskuntza, praktikotasun eta erabilgarritasunaren balore liberalak edota emakumezkoen oinarriko ikasketen luzapena, beste batzuen artean. Izan ere, malgutasunean eta berritzaile borondatean zegoen, eta dago, iraunkortasunaren giltzarria.

Hala eta guztiz, garaiko ikusmoldeetatik begiratuta, nabaria da hainbat arlotan aurrerakoa zirudien hezkuntza-eredu hark bere mugak zituela. Lehenik, emakumezkoari irakaskuntza osatu eta berritua eskaintzen zitzaion

baina beti ere bere amatasuna edo famili funtzioa arriskuan jarri gabe, hor baitzegoen emakume izatearen gakoa. Zertara dator bestela *gehiagizko* edo *kaltegarritzat* jotzen ziren ikasgaien debekua? Bigarrenik, ikastetxea nekatoen kultur maila hobetzen saiatu zen arren, ohiko emakumetasun-ereduari eutsi zion honen ezaugarri nagusiak finkatzen lagunduz, hots, emakumezkoaren famili nortasuna (pertsone-nortasuna ordez, bere egitekoak nagusiki esparru pribatura mugatzen zirelarik), ezkontzaren garrantzia, emakume-gizonezkoen arteko ezberdintasun "naturalak", emakume menpekor eta esanekoaren estereotipoa edo etxekoandre jatorraren idealizazioa. Hirugarrenik, egia da irakaskuntza "literarioak" edo prestakuntza "profesionalak" gero eta pisu handiagoa hartu zutela ikastetxearen curriculumean, gizarte-baldintza berrietara moldatzeko asmoz. Hezkuntzaren ardatza ordea erlijioan eta moralean kokatuta zegoen eta hala iraungo du denbora luzez. Ez dezagun ahantz azken helburua emakume kristauak heztea zela. Laugarrenik, gizartea ulertzeko eskemetan aldaketa gutxi ekarri zuen karmeldar ikastetxeak. Izan ere, bere hezkuntza-formula bikoitza (ordaintzeko klaseak eta doakoak) guztiz bat zetorren garaiko pentsamolde nagusiarekin.

5. Ondorio gisa

Esandakoak esan, ez ginateteke ausartuko aztertu dugun hezkuntza-eredua soilik kontserbadorea edo tradizionala dela baieztatzen, gaurko ikuspuntutik begiratuta hala iruditu arren –batek baino gehiagok gaitzetsiko luke eredu sexista, klasista eta atzerakoi baten aurrean gaudelakoan–. Guk, aldiz, nahiago izan dugu eredu hau bere testuinguruan koka-

tzea eta garaian indarrean zeuden emakumeari eta emakumezkoen hezkuntzari buruzko pentsamolde nagusien argitan aztertzea. Honek pedagogia katolikoa hobeto ulertzeko eta, bide batez, bere ekarpenak zuzenago baloratzeko, aukera eman digu. Gauzak horrela, eta azaldutakoa kontuan izanik, Zumaiako ikastetxea nonbait kokatzekotan tradizioa eta modernotasunaren erdibidean kokatu-ko genuke; izan ere, bi munduetako ezaugarriak hartuko ditu bere etengabeko tradizio mantentze-berritze

borrokan. Jakina, karmeldarren hezkuntza-ereduak, eta oro har elizarenak, funtsean tradizionala zen arren, ezinbestez gizarte hiritar eta industrializatu batera moldatu behar zuen, gizarte horren hainbat ideia eta balore bereganatuz. Bukatzeko, geure buruari egiten diogun galdera zera da, alegia, eliztar hezkuntza-ereduak “azaleko” berrikuntza horiek onartzerakoan ea ez ote zuen aldaketa sakonago baten hazia ereiten lagundu. Erantzuna hurrengorako utziko dugu.

Bibliografia

- Alonso, A.M. (1968): *Historia documental de la Congregación de las Hermanas Carmelitas de la Caridad*, Carmelitas de la Caridad Vedruna, Madril, 2t.
- , (1995): *Raíces de nuestra propuesta educativa*, Carmelitas de la Caridad Vedruna, Erroma.
- Ballarin Domingo, P. (1989): “La educación de la mujer española en el siglo XIX”, *Historia de la Educación*, 8, 245-260.
- Beaufreton, M. (1905): “L'éducation pratique des jeunes filles”, *La Quinzaine*, 261, 1-20.
- Bricard, I. (1985): *Saintes ou pouliches. L'éducation des jeunes filles au XIXe siècle*, Albin Michel, Paris.
- Burgell, M.I. (1994): *Carisma educativo de Joaquina de Vedruna*, Carmelitas de la Caridad Vedruna, Bartzelona.
- Capel, R.M. (1986): *El trabajo y la educación de la mujer en España (1900-1930)*, Ministerio de Cultura-Instituto de la Mujer, Madril.
- , (1990): “Debate, conquistas y expectativas de la enseñanza de la mujer española durante la edad de plata”, in *IV Coloquio de Historia de la Educación. Mujer y Educación en España, 1868-1975*, Universidad de Santiago, Santiago de Compostela, 741-754.
- Clark, L. (1984): *Schooling the daughters of Marianne: Textbooks and the Socialization of Girls in Modern French Primary Schools*, State University of New York Press, Albania.
- Delumeau, J. (Zuz.) (1992): *La religion de ma mère. Les femmes et la transmission de la foi*, Les éditions du Cerf, Paris.
- Erskine Stuart, J. (1914): *L'Éducation des jeunes filles catholiques*, Perrin et Cie., Paris.
- Goma, I (1931): *La Familia, según el Derecho Natural y Cristiano*, Casulleras, Bartzelona.
- Jaime Nonell, P. (S.J.) (1903): *Vida y virtudes de la Reverendísima Madre Paula Delpuig de San Luis*, Manresa.
- Lancis, R. (1895): *Guía General de Guipúzcoa*, Hijos de I.R. Baroja, Donostia.
- Lasa, J.I. (1968): *Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco*, Auñamendi, Donostia.
- Mayeur, F. (1979): *L'Éducation des filles en France au XIXe siècle*, Hachette, Paris.
- Mayeur, F. eta Gadille, J. (Zuz.) (1980): *Education et images de la femme chrétienne en France au début du XXème siècle*, L'Hermès, Lyon, 1980.
- Pio XI (1921): *Casti Connubi Entziklika*.

- Pirala, A. (1889): *El libro de oro de las niñas*, Obra de texto, Madril. Ruiz Amado, R. (1912): *La educación femenina*, Librería religiosa, Bartzelona.
- , (1921): "Cultura femenina", *Frivolidad y Responsabilidad. Conferencias familiares*, Librería religiosa, Bartzelona, 60-63.
- Scanlon, G.M. (1987): "La mujer y la Instrucción Pública: de la Ley Moyano a la II República", *Historia de la Educación*, 6, 193-207.
- , (1990): "Nuevos horizontes culturales: la evolución de la educación de la mujer en España, 1868-1900" in *IV Coloquio de Historia de la Educación. Mujer y Educación en España, 1868-1975*, Universidad de Santiago, Santiago de Compostela, 721-740.
- Secondy, L. (1981): "L'éducation des filles en milieu catholique au XIXe siècle", *Cahiers d'histoire*, 26, 337-352.
- Turin, Y. (1967): *Le educación y la escuela en España. De 1874 a 1902. Liberalismo y Tradición*, Aguilar, Madril.
- , (1989): *Femmes et religieuses au XIXe siècle*, Nouvelle Cité, Paris.
- Yetano Laguna, A. (1988): "Congregaciones femeninas de enseñanza fundadas en Cataluña en el siglo XIX", *École et Église en Espagne et en Amérique Latine. Aspects idéologiques et institutionnels*, Publications de l'Université de Tours, Tours, 297-305.